



«Denok irakurri beharko genukeela pentsatzen dut»

Iban Aguiar
ONDARROA

Irakurri nuen azken liburua *La historia interminable* izan zen, eskolan. Ordunik, albiste bat edo beste baino ez dut irakurtzen. Dena dela, denok irakurri beharko genukeela uste dut. Entretenezko istorioak irakurriko nituzke gusturen.



«Guri bertoko barriak leitzea gustatzen zaigu»

Angela Mallea eta Julia Zuazo
MUNITIBAR

Guk hauxe irakurtzen dugu [Hitzza eskuetan], liburuekin-eta nekatu egiten gara. Orain, badakizu, ikusmena ere arin nekatzen zaigu eta. Guri bertoko barriak leitzea gustatzen zaigu eta HITZA da gure irakurgai.



«Tarteka, gustukoa dudana istorio bat hartzen dut»

Pedro Alberdi
MUTRIKU

Azken irakurri dudana *Viven* izan da. Zaharra bada ere, lagun batek utzi zidan, eta gustura irakurri dut. Egia esan, ez daukat asko irakurtzeko zaletasunik. Tarteka, gustukoa dudana istorio bat hartzen dut, eta hori irakurtzen dut.



«'El gladiador' amaitu dut orain; gustatu zitzaidan»

Oihana Atxa
AULESTI

Joan den astean amaitu nuen *El Gladiador*; gustatu zitzaidan. Asko gustatzen zaizkidanak Toti Martinez de Lezearenak dira, azkenaldian hainbat irakurri ditut berarekin. Ume bi ditut, eta ez da erraza izaten irakurtzeko tartekak hartzea.



«Ez dut denpora larregirik edukitzen leitzeko»

Lurdes Natxiondo
LEKEITIO

Gustukoa badut, baina ez dut denpora larregirik edukitzen leitzeko; etxetik kanpora beharra, eta gero, etxean ere egin behar da... Nik HITZA leitzen dut egunero, hori bai. Bestela, alabaren libururen bat hartu izan dut inoiz-inoiz.

» **INKESTA:** Zein liburu ari zara irakurtzen? Zein da irakurri zenuen azkena? Zein genero edo ze motako liburuak dituzu gustukoak?

UDABERRIA, ORRI BERRIZ

Literatura » Gaur da Liburuaren Nazioarteko Eguna; hainbat ekitaldi egingo dira inguruan gaurko egunaren bueltan.

MADDI IBAIBARRIAGA ZUBIKARAI

Letrek, orriek, istorioek, imaginazioak eta esfortzuak badute eguna. Gaur ospatzen da Liburuaren Nazioarteko Eguna. Eta bide batez, baita irakurtzearene ere. Irakurtzeaz urte osoan goza daitekeen arren, gaurko egunak gogorarazi eta, zergatik ez, beste liburu bat zabalteko aukera eskaintzen du.

Gaurko egunaren bueltan etortzen da urteko lehen argitapen olatua, udaberriagaz. Bigarrena udazkenean izaten da, Durangoko Azokari begira egiten dena. Azken hori askoz emankorra izaten da, baina, orainoan ere, udaberrira begira, liburu asko kaleratzen dituzte idazleek.

Emakumeak dira orainoan eskualdeko argitalpenen artean protagonista. Sei liburu berri dakartza udaberriak, eta seirak dira emakumeenak: Maribel Aiertza, Miren Agur Meabe, Yolanda Arrieta, Leire Bilbao eta Ana Urkiza.

Gainera, Miren Agur Meabek beste argitalpen bat kaleratuko du uda baino lehen: helduentzako ipuin ilustratu bat izango da.

Non aukeratua badago. Orain, azala zabaldu eta istorioetan mur-

giltzea bakarrik falta da. Ez daitezela liburuak bakarrik gaurko egunez ikusi.

Hitzaren oparia, bertokoena letra eta irudiekin

Liburuaren Eguna dela eta, LEA-ARTIBAI ETA MUTRIKUKO HITZAK opari bat egin nahi die irakurleei. Eskualdeko liburategietan, *Ametsetarako Hitzak* ipuin bilduma jarriko da opari modura, libururen bat maileguan hartzen duen edonorentzat. Bertoko sortzaileek idatzi eta ilustratutako ipuinez gozatzeko aukera dago liburuan. Orain, liburu bat etxera mailegu modura eroaten dutenek, liburu hori dohain jaso ahal izango dute, beragaz gozatzeko.

Aulestiko, Berriatuako, Etxebarriko, Gizaburuagako, Lekeitioko, Markina-Xemeingo, Munitibar, Mutrikuko eta Ondarroako liburategietan eskura daiteke, beti ere, liburu bat maileguan hartuta; bestetik, Amoroton guraso elkarrean bitartez lor daiteke, Zortza-Bolibarren Aranbaltz kultur elkartera jota, Gizaburuagan Olazar elkartera, Mendexan Kukuhabixara eta Ispasterren eskolara.

» UDABERRIKO LIBURUAK



'Tigreak hondartzan'

■ **Idazlea:** Maribel Aiertza.
■ **Argitaletxea:** Elkar.
■ **Generoa:** Eleberria.
■ **Laburpena:** Ander txiki-txikitik harritu dute animaliek, benetakoek nahiz irudimenezkoek: hondartzan bisitari batek eginiko hondarrezko tigre familiak edota aitona kontaktutako Arnoko tigrearen istorioak. Patuak zirkuko bizi-modura eroan zuten umetan, etxekeogandik urrun. Amak, hil aurretik, bere bizitzaren benetako historia gutun batean utziko dio Ninori.



'Armairu barruan ipuinak...'

■ **Idazlea:** Leire Bilbao.
■ **Ilustratzailea:** Estibalitz Jalon.
■ **Argitaletxea:** Erein.
■ **Generoa:** Haur eta gazte literatura.
■ **Laburpena:** Aneri irakurtzea gustatzen zaio. Inork molestatu gabe, ahal bada. Horrelakoetan, armairu barruan sartzen da linterna batekin. Armairua handia da, zaharra, amona zuenarena. Amak armairu zaharra kendu eta lkeako moderno bat jarri du. Armairua erretiratzera joan dira, eta Anek espero ez zuen bidaia egingo du.



'Mila magnolia lore'

■ **Idazlea:** Miren Agur Meabe.
■ **Ilustratzailea:** Eider Eibar.
■ **Argitaletxea:** Gero-mensajero; Abarka bilduma.
■ **Generoa:** Narrazioa.
■ **Laburpena:** Neskato bat gaixorik dago ospitaleko ohean. Beste zenbaitetan ere ziana da bertan, baina orainoan desberdina da guztia, edo horren susmoa du berak behintzat. Aita du aldamenear. Ohean etzanda dagoela magnolia eder bat ikus dezake... Kontakizunarekin batera, eskuineko orrialdean, olerki txiki batzuk daude.



'Olagarro bat bainuontzian'

■ **Idazlea:** Leire Bilbao.
■ **Ilustratzailea:** Jose Mari Morcillo Morkots.
■ **Argitaletxea:** Elkar.
■ **Generoa:** Haur eta gazte literatura.
■ **Laburpena:** «Aitak ez dakit ze plan daukan olagarroarentzat. Baina nik badaukat, maskotatzat hartzea. Gurasoek, ez dutela zakurrik edo katurik nahi esan didate. Baina ez didate olagarro bat hartzeko debekurik jarri. Beraz, bainuontziari leku egokia iritzi diot Erro baitaizteko».



'Itzalpetik'

■ **Idazlea:** Yolanda Arrieta.
■ **Ilustratzailea:** Leire Urbeltz.
■ **Argitaletxea:** Erein.
■ **Generoa:** Album ilustratua.
■ **Laburpena:** Zer gertatuko litza-teke, bat-batean, argi-indariak gabe geratuko bagina? Garapena beste era batekoa izan daitekeela azaltzen du album honek.

'Nitaz ahaztu dira'

■ **Idazlea:** Yolanda Arrieta.
■ **Ilustratzailea:** Eider Eibar.
■ **Argitaletxea:** Erein.
■ **Generoa:** Haur eta gazte literatura.
■ **Laburpena:** Neskato bat etxera helden da. Inor ez dago, ordea. Orduak pasatuz doaz eta inor ere ez da agertzen. Bere abentura hasten da orduan, gaueko autobusean, berataz erabat ahaztu direlakoan. Pippi Kaltzaluz da orain...

'Bidegorriko festa'

■ **Idazlea:** Ana Urkiza.
■ **Ilustratzailea:** Aitziber Alonso.
■ **Argitaletxea:** Erein.
■ **Generoa:** Haur eta gazte literatura.
■ **Laburpena:** Ikasle talde bat festa batera joan eta zerbait pasatuko da. Bueltatzen direnean irakasleak bidaia horretan gertatutakoa kontatzeko eskatuko die ikasleei. Liburu ikasle horiek idatzitakoagaz dago osatuta. Txostenetik txostenera argitzen joango da festan zer gertatu zen, eta ezusteko bat egongo da azkenean.



Ametsetarako Hitzak liburua oparituko da herri denetan.